



Urpeko arriskuak

stripuaz landa, urpekariak uste baino arrisku gehiagori egin behar diote aurre murgilaldi bakoitzean. Besteak beste, iharduerak berak sorrarazten dituen osasun-arazoak bereziki larriak dira urpekaritza maite eta sarritan aritzen direnentzat. *The Lancet* aldizkari ingelesak kaleratu berri duen ikerketaren arabera, urpekarien nerbio-sisteman ohizkoa den baino asaldura patologiko gehiago antzeman da. Tomografia konputarizatua erabiliz bestalde, urpekarien zerebroan ohi baino zauri gehiago dagoela baieztatu dute. Aldizkariak kaleratu duen txostena Akisgraneko Unibertsitatean burutu da eta bertako ikerlarien iritziz, zer ikertu asko geratzen da oraindik. Hurrengo hilabeteetan urpekarien gorpu-


The Lancet aldizkari ingelesak kaleratu berri duen ikerketaren arabera, urpekarien nerbio-sisteman ohizkoa den baino asaldura patologiko gehiago antzeman da.



tzean murgilaldi bakoitzak epe luzean eragin ditzakeen kalteak aztertuko dituzte. Ikerlarien esanetan, bizkar hezurreko lesioak saihestu ahal izateko lagungarri gertatuko da lan hori.

Hurrengo mendeko aspirina

Zalantzarik gabe, gaur egungo gizartean gehien erabiltzen den botiketakoko bat aspirina da. Edozein delarik gaitza, aspirina hartuta konpon daitekeela uste du jende askok. Jakina da bestalde, aspirinak bigarren mailako ondorioak ere izan ohi dituela. Horretaz jakitun, aspirinaren eraginkortasun-maila berbera eta bigarren mailako ondorioak ez izan ez duen farmakoaren bila ari dira Chicagoko Unibertsitatean; itxura guztien arabera, hurrengo mendeko panazea izan daitekeen botikatik gero eta hurbilago daude. Ikerketaren lehen urratsa aspirinaren funtzionamendua argitzea izan da. Ez da ordea, zeregin makala izan. Aspirinak PGSH-1 eta PGSH-2 izeneko entzimak abiarazten dituela ikusi dute ikerlariak eta horretatik abiatu dira botika horren abantailak eta kalteak non gertatzen diren argitu ahal izateko. Behin-behineko emaitzak baino ez dira kaleratu eta horien arabera, PGSH-1 entzima litzate-



aspirinaren eraginkortasun-maila berbera eta bigarren mailako ondorioak ez izan ez duen farmakoaren bila ari dira Chicagoko Unibertsitatean

ke bigarren mailako ondorio kaltegarrien eragilea eta PGSH-2 entzimari zor zaio behin baino gehiagotan denok eskertu dugun eragin lagungarria. Edonola ere, ikerketaren hastapenetan daudela ohartu nahi izan dute ikerlariak, besteak beste, aspirinak ekoizten dituen laborategian buruko min itzela heda ez dadin.

Kontrolik gabeko odola

Indiako Bengala hirian, HIESaren HIV birusa duten biztanleen laurdena odol-emaile profesionala da. Kalkutako Medikuntza Eskolako ikerlariak salatu dutenez, Indiako Osasun Erakundeek arazo horrekiko erakutsi duten axolagabekeriak arriskuan jar dezake HIESaren kontra bertan burutzen ari den egitasmo berria eta are larriagoa izan daitezkeena, kontrolaezin bihur daitezke odol-emate guztiak.

Zenbait osasun erakundek salatu dutenez, Indiako ospitaleetan ez dira segurtasun-neurriak betetzen eta bertara iristen den odola batera kontrolik gabe erabiltzen da. Horrez landa, odol-emaileen osasun-egoera batera kontrolatzen ez denez, kutsatutako odola nonahi agertzen omen da ospitaleetan. Esate baterako, Indiako Gurutze Gorriak kudeatzen duen bankuak kutsatutako



Kalkutako Medikuntza Eskolako ikerlariak salatu dutenez, Indiako Osasun Erakundeek odolaren arazoarekiko erakutsi duten axolagabekeriak arriskuan jar dezake HIESaren kontra bertan burutzen ari den egitasmo berria.

odola saldu ohi duela behin baino gehiagotan salatu izan da, orain arte frogapenik eman ez bada ere. Kalkutako ikerlari-taldeak eman dituen datuen arabera, Indiako bankuetan dagoen odolaren erdiak B motako hepatitis a kutsatzeko gaitasuna du. Hori horrela dela jakin arren, odolaren erabilerara kontrolaezina dela diote.

